

2030^{erako}
EUSKADIKO
jasangarritasunerako
hezkuntza
estrategia

....



2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaularitzaren *Bibliotekak*
sarearen katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.^a, 2018ko urtarrila

Ale-kopurua: 200 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua: Canaldirecto · www.canal-directo.com

Inprimatzea: Grafilur

Lege-gordailua: BI XXXX-2018


aurkibidea



Aurkezpena	7
1. Sarrera	9
1.1. Jasangarritasunerako hezkuntzaren testuingurua	
1.2. Diagnostikoaren ondorio nagusiak	
1.3. Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia prestatzeko partaidetza-prozesua	
2. Ikuspegi estrategikoa	31
2.1. Ikuspegia-Misioa	
3. 2030erako helmugak eta jarduera-lerroak	35
4. 2020rako ekintza-plana	41
5. Kudeaketa-eredua: gobernantza, analisi ekonomikoa eta jarraipena	47
5.1. Gobernantza	
5.2. 2020rako ekintza Planerako baliabide ekonomikoak	
5.3. Jarraipena eta ebaluazioa	

0

aurkezpena





Iñaki Arriola López

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak landutako gida hau praktikoa eta kolaboratiboa izatea nahi dugu. Izan ere, gure asmoa da eragile guztiak sartzea estrategiaren barruan, eta eragile horiek guztiak elkarrekintzan jardutea, helburu argi batez: bizimodu berrietara aldatzea lortzea, jasangarritasunaren kultura berri baterantz joz.

Gure gizarteak onartuta dauka hezkuntza ezinbesteko tresna dela garapen individual eta kolektiboa, kohesio soziala eta herritarren arteko bizikidetzeta lortzeko. Hezkuntzak funtsezko eginkizuna betetzen du gizartea justuagoa lortzeko bidean, jasangarritasun kulturaren eremuaren barruan.

Azken hamarkadetan, bide emankorra egin du euskal gizarteak jasangarritasunari dagokionez, kuantitatiboki zein kualitatiboki.

Nazioarteko erakunde gorenekoek aitortu dute alde horretatik hemen egindako ahalegina eta lana. Aitorpen horren adibide bat da “Eskola Agenda 21” programa, zeinean ikasleen % 60k baino gehiagok eta gure erkidegoan derrigorrezko etapak ematen dituzten ikastetxeen % 60k parte hartzen duten. UNESCOk berak nabarmendu du programa, jardunbide egokitzat joz, Garapen Jasangarritasunerako Hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkadaren barruan.

Euskadin, Eskola Agenda 21 programak ikastetxe askoren iraunkortasun-planak biltzen ditu. Baina oraindik ere jasangarritasun-hezkuntzaren aldeko ekintzak beste eremu askotara zabaldu behar dira, esate baterako, Lanbide Heziketako ikastetxetara eta unibertsitate-komunitatera, eta Eskola Agenda 21 programaren eredia berriz definitu behar da eremu horietan, edo geure lan egiteko eredia definitu behar da.

Azken urteotan, jasangarritasunerako hezkuntza Euskadiko eskola curriculumean sartu da. Konpromiso horren adibide onak ditugu Unibertsitatez Kanpoko Hezkuntza Sistemaren Ingurumeneko Hezkuntza Programa edo Ingurumeneko Hezkuntza Plana, 2006koa. Ildo horretan aipatu nahiko nuke zer-nolako aurrerapausoa eman zen 2020ko Ingurumeneko IV. Eremu Programan sartu zenean Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren Estrategiaren lanketa.

Eta lan hori guztia ez da alferrikakoa izango: jarduera horiek guztiak lagunduko dute etorkizun jasangarria bermatzen, iraunkortasun ardatz guztiak aintzat hartuz: soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa. Garapen iraunkorrerako hezkuntzak behar duen guztia dauka ikasgelaren eta enpresaren artean zubi finkoagoak eratzeko tresna gisa erabilia izateko, bai eta ikastetxe eta ikastolen eta komunitateen artean ere.



Cristina Uriarte

Hezkuntzako sailburua

1

sarrera



Jasangarritasunerako Hezkuntzak (JH) herritarren etengabeko prestakuntza-prozesu bat izan behar du. Horretarako, herritarrek informatuta eta inplikaturik egon behar dute, arazoak konpontzeko tresna sortzaileak eduki behar dituzte, kultura zientifiko eta soziala behar dute eta jarduketa arduratsu indibidual eta kolektiboen protagonista izateko konpromisoa hartu behar dute. Jarduketa horien laguntzaz etorkizun jasangarria izatea bermatuko da, jasangarritasunaren ardatz guztiak kontuan izanda: soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa. Garapen jasangarrirako hezkuntzak, tresna gisa, beharrezko potentziala dauka ikasgelaren eta enpresaren artean eta ikastetxeen eta komunitateen artean zubi sendoagoak eraikitzeko.

Nahiz eta «jasangarritasunerako hezkuntza» esamoldea ingurumen-hezkuntzatik abiatuta eraikitzen joan den, gaur egun, hainbat mugimenduz ere elikatzen da: ingurumen-hezkuntzaz, hezkuntza globalaz, hezkuntza ekonomikoz, garapenerako hezkuntzaz, hezkuntza kulturantzaz, kontserbaziorako hezkuntzaz, aire zabaleko hezkuntzaz eta aldaketa globalari buruzko hezkuntzaz, besteak beste. Jasangarritasunerako hezkuntza, beraz, zabala da eta hainbat ikuspuntu biltzen ditu.

Jasangarritasunerako hezkuntza pertsona guztiei zuzenduta dago, etengabeko prestakuntzaren ikuspegi batekin, ikaskuntzaren ahalik eta espazio gehien barne hartzeko (formalak, ez-formalak eta informalak), haurtzarotik hasita bizitza osoan. Hezkuntza-ikuspegiak berrorientatzea eskatzen du: ikasketa-plana, edukia, pedagogia, metodologiak, etab. Ikaskuntza-espazioek barne hartzen dituzte ikaskuntza ez-formala, erakunde komunitarioak eta tokiko gizarte zibila, lantokia, hezkuntza formala, prestakuntza tekniko eta profesionala, erabakiak hartzeaz arduratzen diren erakundeak eta askoz ere gehiago.

Diziplina arteko ezagutza sistemiko bat bereganatzeko, hala nola gizarte eta ekonomia jasangarrien garapenean aktiboki parte hartu ahal izateko beharrezko gaitasunak lortzeko ere, diziplina-arlo gehiagotan txertatu beharko litzateke jasangarritasunerako hezkuntza, baita ikaskuntzaren maila guztietan ere. Horrez gain, goi-mailako ikaskuntza-erakundeetan eta ikasgeletatik kanpo presentzia handiagoa izan beharko luke. Zorionez, herrialde askotako hezkuntza-agintaritzak helburu horien alde lan egiten ari dira. Nazio Batuen 2005-2014 aldirako Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkada ere norabide egokian emandako pauso positibo bat izan da.

Gaur egungo erronka programa zabalak sustatzea eta babestea da eta hartzaileek gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-ikuspegitik jasangarriak diren komunitateak mantentzeko konpromisoa hartzea. Orain arte, neurri handi batean, ingurumen-hezkuntzaren bidez lan egin da. Etorkizunean, lan hori hezkuntza globalean ardaztu beharko litzateke, eta esparru horretako funtsezko osagaietako bat garapen jasangarria da.

2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiak Hezkuntza eraldatzaile bat garatzeko zimenduak jartzen ditu, euskal gizarte justuagoa eta jasangarriagoa lortzeko helburuarekin.

Estrategia honen xedea jarduketa-gida praktikoa izatea eta elkarlanean oinarritzea da. Hala, eragile guztiei lekua emango die, elkarrekintzan aritu daitezten, helburu argi batekin: Euskadin bizi diren pertsona guztien arteko konplizitatea lortzea, gure bizimoduetatik jasangarritasunaren kultura berri bateranzko trantsizioa lortzeko.

1.1. Jasangarritasunerako hezkuntzaren testuingurua

a) Jasangarritasunerako hezkuntzaren munduko eta europako testuingurua

Jasangarritasunerako Hezkuntzarekin lotutako nazioarteko mugarri nagusiak honako koadro honetan jasota daude:

Urtea	Nazioarteko mugarria	Mezu nagusia
1972	Stockholm: Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra	Ingurumenaren arloko hezkuntza ezinbestekoa da Ingurumena babesteko eta defendatzeko.
1975	Belgrad: Ingurumen Hezkuntzako Nazioarteko Mintegia	Ingurunea ingurumenari buruzko gertakariak ikasteko aztergaitzat hartzen zuten lehen joera pedagogikoak elkartu ziren. Honako helburu hauek zituen, besteak beste: kontzientzia-hartzea, ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak bereganatzea, eta ebaluatzeko gaitasuna eta parte-hartzea areagotzea.
1977	Tbilisi: Ingurumen Hezkuntzari buruzko Gobernuen arteko Biltzarra	Pertsona ingurumen-arazoak ulertzeko prestatzea, eta ingurumena babesteko eduki teknikoak ematea.
1987	Mosku: Ingurumenaren inguruko Hezkuntzari eta Trebakuntzari buruzko Nazioarteko Biltzarra	Ingurumen-arazoaren inguruko kontzientzia-zioa eta arlo horren inguruko hezkuntzaren eta trebakuntzaren sustapena.
1987	«Gure etorkizun komuna» lanean (Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordearen txostena, Brundtland Txostena bezala ere ezaguna)	Honela definitzen da garapen jasangarria: «egungo belaunaldien beharrak ziurtatzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrei aurre egiteko ahalmena arriskuan jarri gabe».
1992	Rio de Janeiro: Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra	Programa 21 eta hezkuntza, trebakuntza eta kontzientzia hartzea sustatzea. Programa 21eko 36. kapituluak, hezkuntzak, prestakuntzak eta sentsibilizazioak garapen jasangarria lortzeko duten rol erabakigarriari buruzko nazioarteko eztabaidak idatziz jaso ziren.
1997	Tesalonika: Ingurumenari eta Gizarteari buruzko Nazioarteko Biltzarra	Jasangarritasun terminoa sartzen da hezkuntzan. Hortik aurrera Jasangarritasunerako Hezkuntzari buruz hitz egiten hasiko gara.

Urtea	Nazioarteko mugarría	Mezu nagusia
2000	New York: Milurtekoko goi-bilera. Milurtekoko helburuak	Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea; lehen hezkuntza unibertsala lortzea; genero-berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea; haurren heriotza-tasa murriztea; amen osasuna hobetzea; HIESari, malariari eta beste gaixotasunei aurre egitea; ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea; garapenerako nazioarteko elkarteak sustatzea.
2002	Johannesburg: Río + 10: Garapen jasangarriari buruzko Munduko Goi Bilera	NBEk UNESCOri eskatu zion «Jasangarritasuneranzko Hezkuntzaren Hamarkada» garatzea.
2005-2014	Nazio Batuen 2002ko Batzar Nagusia: 57/254 ebazpena: «Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkada 2005-2014»	Garapen jasangarriari atxikitako baloreak irakaskuntzaren aspektu guztietan integratzea, gizarte jasangarriagoa eta guztiontzat zuzenagoa lortzea erraztuko duten jokabide-aldaketak sustatzeko.
2010	Rio de Janeiro: Haurren eta Gazteen Nazioarteko Biltzarra: Zaindu dezagun Planeta	Planetako gazteen erantzukizunen karta. (Esperientziak eta iritziak partekatzeko eta ingurumenari buruz dituzten kezkek kolektiboki adierazteko foroak: Erantzukizunen karta).
2012	Rio de Janeiro: Garapen jasangarriari buruzko Nazio Batuen Biltzarra: «Nahi dugun etorkizuna»	Nazioarteko komunitateak erabaki zuen «garapen jasangarrirako hezkuntza sustatzea eta garapen jasangarria hezkuntzan modu aktiboagoan txertatzea, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Nazio Batuen Hamarkadan baino haratago» («Nahi dugun etorkizuna» azken dokumentuaren 233 par.).
2013	UNESCOren Biltzar Nagusia	Garapen Jasangarrirako Hezkuntzako mundu-mailako ekintza-programa onartu zen, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Nazio Batuen Hamarkadaren jarraipen bezala.
2014	Maskateko Hitzarmena. Guztiontzako Hezkuntzari (GH) buruzko Munduko Bilera	GJH – Garapen Jasangarrirako Hezkuntza helburu bezala sartu zen Hitzarmenean eta Garapen Jasangarriko Helburuen proposamenean.
2014	Aichi-Nagoya: Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruzko UNESCOren Munduko Biltzarra	GJHri buruzko mundu-mailako ekintza-programa hasten da.
2015	UNESCOren Biltzar Nagusiaren 37. bilkura	Jasangarritasunerako Hezkuntzari buruzko Mundu Mailako Ekintza Programa onetsi zen.
2015	NBEren Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030erako Agenda onartu zuen	Agendak 17 helburu planteatzen ditu, integratutako 169 xede zatiezin ezarriz, alor ekonomikoan eta sozialean eta ingurumenean.

Garbi dago aurreko hamarkadetan jasangarritasunerako hezkuntzaren arloan gauza asko gertatu direla, eta horien ondorioek, kasu askotan, herrialdeen mugak gainditu dituztela. Horietako bat, bereziki nabarmena, **Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkada izanda (2005-2014, GJHH)**, UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) buru zela. Horren helburua garapen jasangarriaren printzipioak, balioak eta praktikak hezkuntzaren eta ikaskuntzaren arlo guztietan barneratzea zen.

Geroago, UNESCOren 37. Biltzar Nagusian, 2015ean, **GJHari buruzko Munduko Ekintza Programa (MEP)** onartu zen, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkadari jarraipena emateko ekarpen zehatz gisa. Munduko programa horren helmuga honako hau da: «Hezkuntzaren eta ikaskuntzaren arlo guztietan ekimenak sortzea eta areagotzea, garapen jasangarria lortzeko aurrerapausoak azkartzeko».

GJHari buruzko Munduko Ekintza Programan lehenetsuneko bost alor identifikatzen dira:

- Politikak sustatzea. Jasangarritasunerako Hezkuntza eta garapen jasangarria nazioarteko eta estatuko politketan barne hartzea.
- Jasangarritasuneko jardunbideak testuinguru pedagogikoetan eta gaikuntzakoetan sartzea (erakunde osoa barne hartuko duten ikuspegi bitartez).
- Hezitzaileen eta prestatzaileen gaitasunak areagotzea.
- Gazteei autonomia ematea eta haiek mobilizatzea.
- Tokiko komunitateak eta udal-agintariak premiatzea komunitatean oinarrituriko garapen jasangarrirako hezkuntza-programak landu ditzaten.

UNESCOk Jasangarritasunerako Hezkuntza existitzen diren askotariko hezkuntza-moldeak barneratzen dituen eta munduko herritarrei etorkizun jasangarriago bateranzko bidea aurkitzen laguntzen dien paradigmaz hartzen du. Horregatik, jasangarritasunaren arloko funtsezko gaiak hezkuntzan eta ikaskuntzan barneratzeko asmoa du:

- Klima-aldaketa.
- Hondamendi-arriskuaren murrizketa.
- Biodibertsitatea.
- Pobreziaren murrizketa eta kontsumo jasangarria.

Jasangarritasunerako Hezkuntzaren funtsezko ezaugarriak (UNESCOn oinarrituta)

Garapen jasangarriaren atzean dauden printzipioak eta balioak ditu oinarri.

Jasangarritasunaren lau alderdien onuraz arduratzen da: ingurumena, gizartea, kultura eta ekonomia.

Ikaskuntza parte-hartzailea eta pentsamendu landuak sustatzen dituzten hainbat teknika pedagogiko erabiltzen ditu.

Bizitza osoko ikaskuntza sustatzen du.

Garrantzitsua da toki-mailan eta kulturalki egokia.

Tokiko premiak, pertzepzioak eta baldintzak ditu oinarri, baina jabetzen da tokiko premiek sarri dituztela eraginak eta ondorioak nazioartean.

Hezkuntza formalari, ez-formalari eta informalarri eragiten die.

Jasangarritasun-kontzeptua etengabeko bilakaeran den kontzeptua dela onartzen du.

Hainbat ezaugarri garatzen ditu: erabakiak komunitate gisa hartzeko gaitasun zibila, gizarte-tolerantzia, ingurumen-baliabideen kudeaketa, lan-indar moldagarria izatea eta bizi-kalitate ona lortzea.

Diziplina arteko izaera du. Diziplina batek berak ere ezin du bere egin JH; aldiz, diziplina guztiek egin diezaioketek ekarpena JHri.

Beste alde batetik, 2015eko irailean egin zen Garapen Jasangarriari buruzko Goibileran, NBEko estatu kideek **2030erako Garapen Jasangarriako Agenda** onartu zuten. Horrek Garapen Jasangarriako 17 Helburu (GJH) biltzen ditu, pobrezia deuseztatzeko, desberdintasuna eta injustziaren kontra borrokatzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko. Garapen Jasangarriako Helburu berri horiek datozen urteetan herrialde eta eskualde guztien garapen-politikak bideratu beharko lituzkete. Honela definitzen da 4. GJH: «hezkuntza inklusiboa,

bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea, eta ikasteko aukerak sustatzea, guztientzat eta adin guztietan». Kalitatezko hezkuntza bat lortzea da pertsonen bizitza hobetzeko eta garapen jasangarriako oinarria. Hezkuntzaren ikuspegitik, etorkizun jasangarria eraikitzeko ekarpen eraginkorra egingo duten Garapen Jasangarriako Helburuetan parte hartzeko dei horri erantzutea funtsezkoa da. Beraz, Estrategia honen esparruan, aurretik identifikatutako ekintza-arloak 17 Helburu horiek lortzera bideratuko dira.

Garapen Jasangarriako Helburuak (2030rako Garapen Jasangarriako Agenda)



b) Euskadiko jasangarritasunerako hezkuntzaren testuingurua

Euskal gizarteak beti onartu du etorkizuneko erronkei erantzuteko inbertsiorik onena hezkuntza dela. Hezkuntza garapen indibidualerako eta kolektiborako, gizarte-kohe­siorako eta herritarren bizikidetzarako ezinbesteko tresna da. Gainera, hezkuntzak, jasangarritasunaren kulturaren esparruan, gizarte justuago bateranzko trantsizioan funtsezko rola jokatzen du.

Euskal gizarteak, azken hamarkadetan, Jasangarritasunerako Hezkuntzan (JH) egindako bidea kalitate handikoa da, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki. Egindako ahaleginak eta lanak tokiko eta nazioarteko adituen onarpena izan du. Horren adierazle gisa, UNESCOk «Eskolako Agenda 21» programa nabarmendu du, Nazio Batuen Garapen Jasangarritarako Hezkuntzaren Hamarkadako jardunbide egoki gisa (2010).

XX. mendeko 80ko hamarkada

Ingurumen-hezkuntzako lehen esperientziak Euskadiko eskoletan, ikasgelako zein laborategiko jarduerekin eta ingurunera egindako irteerekin, nagusiki.

1982: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Bilbao Bizkaia Kutzaren Gizarte Ekintzak «Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroa» (Sukarrieta, Bizkaia) martxan jartzeko hitzarmen bat egin zuten. Hurrengo hamarkadetan, ingurumen-hezkuntzaren erreferentziazko zentroa izango da.

1985: Lurralde Politika eta Garraio Sailak Ingurumen Hezkuntzako zerbitzua sortu zuen eta Ingurumen Hezkuntzako jarduerak egiteko ikastetxeentzako diru-laguntza deialdiak hasi ziren. Deialdi horiek egun arte iraun dute.

1986: Ingurumen Hezkuntzako Euskadiko I. Jardunaldiak.

1987: Ingurugiro Etxea museoaren sorrera (Azpeitiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioa).

1989: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Hezkuntza Sailen arteko lankidetzeta-hitzarmena. Horren ondorioz, **IHDZk** sortu ziren (Ingurumen Hezkuntza eta Didaktika Zentroak). Gaur egun ingurugela izenarekin ezagutzen ditugu.

1989: IHDZren sorrera (Bilbo, Bizkaia).

1989: Lehen aldiz egin ziren ingurumen-jarduerak gauzatzeko, ingurumen-trebakuntza teknikoko ikastaroak antolatze­ko eta eskolentzako Ingurumen Hezkuntzako Zentroak bisitatze­ko diru-laguntzen deialdiak.

Berrogei urte hauetan hezkuntza, Jasangarritasunerako Hezkuntza formalean pixkanaka barneratu da. 1992an, Estatuko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak (LOGSE) Ingurumen-Hezkuntza zehar-lerro gisa barneratu zuen, eta, azken urteetan, Euskadiko eskola-curriculumean jasangarritasunerako hezkuntza barneratu da. Legedi horrekin batera, Jasangarritasunerako

Hezkuntza bultzatzeko planak egin dira. Lehenengo 1998an onartu zen (Unibertsitatez Kanpoko Hezkuntza Sistemako Ingurugiro Hezkuntza-ren Programa) eta bigarrena 2006an («Jasangarritasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn – Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plana, EAEko Hezkuntza Sistema Formalerako, JIHP»). GJHren bidean, hurrengo pausoa

XX. mendeko 90eko hamarkada

1991: Ingurumen Hezkuntzako Euskadiko II. Jardunaldiak.

1991: Legazpiko IHDZren sorrera (Gipuzkoa).

1992: Estatuko hezkuntza-sistemaren Lege Organiko Orokorraren onarpena (LOGSE). Hezkuntza-erreforman Ingurumen-hezkuntza txertatu zen zeharkako ildo bezala.

1992: AZTERKOSTA kanpaina abiarazi zen, kostaldeari buruzko Europako ingurumen-hezkuntzako COASTWATCH programaren moldaketa.

1994: Eusko Jauriaritzak Peñas Negraseko ingurumen-interpretazio zentroa (Ortuella, Bizkaia) jarri zuen martxan.

1996: Ibaialde sentsibilizazio-kanpaina abiarazi zen, ibai-ekosistemen egoera behatzeko helburuarekin.

1998: Ingurumen-hezkuntzako Programaren onarpena Unibertsitatetik kanpoko Hezkuntza Sistemari, ingurumenaren kudeaketan modu arduratsuan parte hartzea ahalbidetuko duen herritarren beharrezko kontzientziazioa eta gaikuntza lortzeko.

1998: Donostiako IHDZren sorrera (Gipuzkoa).

1998: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorraren onarpena.

Ingurumen-hezkuntzako ekintzak egiteko, ikastetxeei diru-laguntzak emateko hainbat deialdi.

2000: Gasteizko IHDZren sorrera (Araba).

XXI. mendea

2001: «Txingudi Ekoetxea» ingurumen-interpretazioko gelaren sorrera (Irun, Gipuzkoa).

2002: Ingurumen Hezkuntzari buruzko Euskadiko III. Jardunaldiak.

2002: 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumeneko lehen Estrategia onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

2003: Eskolako Agenda 21 programa martxan jarri zen.

2005: IHDZ izena INGURUGELA izenarekin ordezkatzera onartu zen.

2006: EAEko hezkuntza-sistema formalaren jasangarritasunerako Ingurumen-Hezkuntzako Plana onartu zen: «Jasangarritasunerako hezkuntzarako konpromiso baterantz».

2007: Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-curriculum berria. Ingurumen-Hezkuntza curriculum ofizialean integratzen da.

2007: «Eskola Jasangarriak. Jasangarritasuneko hezkuntzarako kalitate-irizpideak» kontuan hartu dituen aitorten sistema martxan jarri zen.

2008: Madariaga Dorretxea, Urdaibaiko Ekoetxea ingurumen-ekipamendua inauguratu zen.

2009: Euskadi jasangarri baterantz aurrerapausoak egiteko Urdaibaiko Ituna.

2014: Heziberri 2020 Planaren onarpena. Hezkuntza-komunitate osoa transformatuko duen tresna da.

2014: Euskadiko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren onarpena.

2014: IHDZ-INGURUGELEN 25. urteurrena ospatu zen.

2014: Hezkuntza Jasangarriaren aldeko Unescoren Munduko Konferentzia. Nagoyan egin zen, Japonian. Eskolako Agenda 21 programa mundu guztiko hezkuntzaren alorreko 25 jardunbide egoki onenen artean hautatu zuten.

2016: AZTERTU programaren 25. urteurrena.

2016: Gazteen Foroa – «Ekintza eraldatzaileak eta belaunaldi berriak» Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Biltzarrean (ICLEI).

2017: Ingurugelak Jasangarritasunerako Hezkuntzaren XV. Topaketak antolatu ditu.

2020rako Ingurumen Esparru Programako (IEP) 5.4 jarduketa-lerroak markatzen du: «*Jasangarritasunerako hezkuntza eta kontzientziazioa indartzea euskal gizarte osoan*» proposatzen da bertan eta 66. jardueran zehazten da «*jasangarritasunerako Ingurumen-hezkuntza Estrategia elaboratzeko*» beharra.

3/1998 Legeak, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, ezartzen du bere 100. Artikuluan: «Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ingurugiro-hezkuntza, -ikerketa eta -sentikortasunerako jarduera-plana elkarlanean martxan jarriko dute.» Alaber, apirilaren 9ko 77/2017 Dekretuak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena, Ingurumen Sailburuordetzari esleitzen dizkio «Ingurumen arloan sentsibilizazio-eta kontzientziatze-jarduerak sustatzea» eta «Administrazioaren sailek sustatutako ingurumen-jasangarritasuneko jarduerak koordinatzea». Berdin,

79/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, zuzendariei ematen die eskumena «bere eskumen-eremuko planak edo jardun-programak proposatzeko organo arduradunei».

Beste alde batetik, Heziberri 2020 Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak gure hezkuntza-sistema hobetzeko sustatu duen plana da. Plan horren bidez, Europan hezkuntzari eta prestakuntzari dagokionez markatutako ildo estrategikoak jaso nahi dira, euskal hezkuntza-sistemaren erronka propioekin batera, sistemaren bikaintasuneranzko pauso sendoak emateko eta gizarte justua, kohesionatua eta aktiboa lortzeko. «Heziberri 2020» planaren bidez, Europan hezkuntzari eta trebakuntzari dagokienez 2020rako finkatutako berrikuntzaren eta garapenaren arloko ildo estrategikoak gure testuinguruko eta inguruneke hezkuntza-erronka propioekin bateratu nahi dira, etorkizuneko belaunaldiak Euskal Autonomia Erkidegoan eta munduan bizitzeko prestatuta egon daitezen.



1.2. Diagnostikoaren ondorio nagusiak

Jarraian, jasangarritasunerako Hezkuntzaren diagnostikoaren laburpen bat jaso dugu, estrategia prestatzeko egin dena. Informazio gehiago behar izanez gero ikus dokumentu osoa **1. eranskinean**.

Garapen jasangarrian oinarritutako gizarte bateranzko trantsizioa egiteko, gizarte-ikaskuntzako prozesu luze bat egin behar da. Euskadiko jasangarritasunerako Hezkuntzak lau hamarkada baino gehiagoko ibilbidea egin du, baina gizarte ez-jasangarrien gorakadak inertzia sozial eta kultural batzuk sortu ditu eta inertzia horiek hezitzeko, kontsumitzeko eta bizitzeko gure moduetan sustraituta jarraitzen dute. Hain zuzen ere, hezkuntza bultzatzeaz gain, jasangarritasunaren aldeko konpromisoa hartzeko ahalegin sozial eta politikoa egin behar da.

Gaur egun arte, eragile asko eta askotarikoak inplikatu dira jasangarritasunaren ikaskuntzan, baina lanari eutsi behar zaio, herritar guztiei bidali nahi zaien mezua argi eta garbi indartu dezaketen pertsonen inplikazio handiagoa lortzeko. Lan horrek jasangarritasunerako hezkuntzaren zeregina erraztuko du.

Oinarritzko Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako euskal curriculumak ikastetxeetan jasangarritasunerako Hezkuntza jorratzeko aukera ematen du, betiere ikasleen gaitasunak garatzearen ikuspegitik, arazoak modu kritikoan aztertu, alternatibak bilatu eta irtenbide irudimentsuak lortu ahal izateko.

Eraldaketa horretan aurrera egin ahal izateko, irakasleen babesa eta laguntza lortu behar da, eta beraiek, era berean, babesa eta prestakuntza behar dute, etorkizun hobe eta jasangarriago bateranzko etorkizuneko proiektu hau garatzeko. Zeregin horretan, **Ingurugela** zentroek ezinbesteko funtzioa dute, eta ikastetxei eta hezkuntza-komunitateari laguntza, aholkularitza eta baliabideak

eskaintzen 25 urte baino gehiago emanda, erreferente bihurtu dira.

Gaur egun, **Eskolako Agenda 21** programa kontsolidatua da eta Euskal Autonomia Ergidegoko Jasangarritasunerako Hezkuntzan erreferentziazkoa da. Programa horrek ikastetxe bakoitzean ingurumen-ekintzaren globaltasunetik lan egiten du eta hezkuntza-komunitate osoa bateratzen du. Halaber, Tokiko Agenda 21en prozesuarekin konprometitu dago. Programa hau hazi egin da eta hezkuntzako nahitaezko etapak ematen dituzten ikaste-txeen % 60ra baino gehiagora iritsi da –ikasleen % 60 ordezkatzen dute–, baina lanean jarraitu behar du, parte-hartzaileak gehiago inplikatzen eta proiektuen kalitatea handitzeko, horrela hezkuntza eraldatzaile bat erdiesteko. Hori lortzeko, kalitatea hobetzeko lanean jarraitzea funtsezkoa izango da. Bide hori ireki dute «Eskola jasangarria» aitorpena eskuratu duten ikastetxeek, kalitatezko antolakuntza- eta hezkuntza-ereduak eskainita. Informazioa partekatzea ahalbidetzen duten komunikazio-teknologiez hornitutako gizarte global batean, sareko lana eta partaidetza banaezinak dira.

Eskolako Agenda 21ek ikastetxe askotako jasangarritasun-planak bateratzen ditu, baina jasangarritasunerako hezkuntzaren aldeko ekintzak oraindik ere toki askotara iritsi behar du, esaterako lanbide Heziketako ikastetxeetara eta unibertsitate-komunitatera. Eta horretarako Eskolako Agenda 21en eredu birdefinitu edo lan-eredu propioa definitu behar da.

Diagnostikoa egiteko prozesuan harremanetan ipini gara hezkuntza formal, ez formal eta informaleko eragileekin, informazioa biltzeko eta lan-saioak egiteko. Prozesu horri esker Euskadiko jasangarritasunerako hezkuntzaren egoeraren «argazkia» lortu dugu.

Jarraian, Euskadiko jasangarritasunerako Hezkuntzaren alorreko ekintzen diagnosis aurkezten dugu, eremu hauetan egituraturik:

— **Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sistema formala** (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa). Atal honetan, Lanbide Heziketan jasangarritasunerako Hezkuntzan aurrerapausoak emateko egindako lana barne hartzen da.

— **Unibertsitatezko hezkuntza-sistema formala**

- Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Deustuko Unibertsitatea.
- Mondragon Unibertsitatea.

— **Hezkuntza-sistema ez-formala**

Irakaskuntza-sistemaren parte izan ez arren berau osatu dezakeen jasangarritasunerako hezkuntza.

Diagnostikoa unibertsitatez kanpoko hezkuntza formalean

Ingurugelek erreferentziazko eragile kontsolidatu, elkartzaile eta dinamizatzaile bezala funtzionatzen dute, unibertsitatez kanpoko hezkuntza formaleko jasangarritasunerako hezkuntzan

- IHDZ - INGURUGELEK beren 25 urtetik gorako-ibilbidean egin duten lana hezkuntza-komunitatearen aintzatespenean islatzen da eta, egun, ezinbestekoak dira jasangarritasunerako hezkuntzarekin erlazionatutako edozer lanetan Euskadin.
- Ingurugelaren funtzionamenduari zuzendutako aurrekontua mantendu egin da, baina ez ingurumen-hezkuntzako programetan inplikaturako giza baliabideak, 2008-2009 ikasturtetik, horiek 18 pertsonatik 14ra pasatu baitira. Bestalde, ingurumen-hezkuntzako proiektuetara bideratutako aurrekontua nabarmen murriztu da, baita udalerrri askok programei ematen zieten diru-sostengua ere.

Eskolako Agenda 21 programaren ezarpena ondo doa

- Ikasleen % 60k eta Euskal Autonomia Erkidegoan derrigorrezko mailak ematen dituzten ikastetxeen % 60k baino gehiagok parte hartzen dute programan. Ikastetxeek programa hau garatzeko duten egitura oso ona da eta programarekiko satisfazio-mailak handia izaten jarraitzen du, batez ere, ikasleen eta Eskolako Agenda 21en koordinatzaileen aldetik.

- Ikastetxe-kopurua handitzen joan zen gutxika 2011-2012 ikasturtera arte eta, ondoren, egonkor-tu egin zen, atzerakada txiki bat izan arte. Hainbat arrazoiren ondorioa izan liteke hori: gehienezko mailara iritsi izana, bestelako berrikuntza-proiektu ugari daude eta; krisi ekonomikoa; Eskolako Agenda 21entzako ordu espezifikorik ez izatea lehen mailako ikastetxeetan; edo programak ez eskaintzea eskolentzako nahikoa elementu erakargarri.
- Zentroek sentsibilizazioa eta komunikazioa lan-tzen dituzte proiektuaren zati garrantzitsu bezala, eta hezkuntza-komunitate osora iristeko: irakasleak, ikasleak, irakasten ez duten langileak eta familiak. Hala ere, hezkuntza-komunitateko zenbait kolektiborentzat (familiak, irakasten ez duten langileak) programa ez da egokia. Hori komuni-kazioko zenbait zailtasunen ondorioz izan daiteke.
- Eskolako Agenda 21ek Tokiko Agenda 21ean parte hartzen du, modu koordinatuan. Zentroek euren Udalari aurkezten dizkiote EA21 proiektuaren emaitzak, eskaerak aurkeztuta. Ikasleek udaletako ekintza-planetan zuzenean parte hartzeko ildo horri dagokionez, koordinazioa altua edo bikaina dela diote ikastetxe eta udaletako % 40k baino gehiagok.
- «Eskola jasangarriaren» kalitate-ziurtagiria duten zentroen kopuruak gora egin du. Ziurtagiria lortzen duten eskolek lau urtean behin berri behar dute.

EA21 duten ikastetxeen % 20 inguruk dute Eskola Jasangarriaren ziurtagiria, autoebaluazio bat eta kanpoko auditoretza bat egin ostean.

- Partaidetzako jardueren kalitate-maila oso handia da. Ikastetxeek parte-hartzearen diagnostikoa egitean aipatzen dituzten jardueren % 42 Hart eskalan 6koak edo hortik gorakoak dira. Esan daiteke ikasleen parte-hartzea eta autonomia-maila sendotzen ari direla.
- Beharrezkoa da Eskolako Agenda 21etik landutako gaiak eskolako eta tokiko lehenetasunetara zein egungo ingurumen-arazoetara egokitzea.
- Ikastetxeen kopuru esanguratsu batek lortu du bere ingurumen-kudeaketa hobetzea (baliabideen kontsumoa, zarata, kontsumo arduratsua, aztarna ekologikoa, biodibertsitatea, irisgarritasuna, etab.) Alabaina, harrigarria da heren batek ez jakitea zer onura ekarri dituen ikastetxean ingurumeneko ekintza-plan bat martxan jarri izanak.
- Beharrezkotzat jotzen da ikastetxe formaletatik kanpo indar handiagok lantzea jasangarritasunerako hezkuntza eta sinergia aurkitzea hezkuntza formalaren eta ez-formalaren artean.

Irakasleen prestakuntza ingurugelaren bidez

- Prestakuntza-eskaintza mantentzea. Estualdi ekonomikoak izan arren, 2009/2010 ikasturtean baliabideen jaitsiera ez zen oso esanguratsua izan eta geroztik eutsi egin zaio eskaintzari.
- Bertaratutako jende gutxiago prestakuntza-eskaintza berarekin. Beharrezkotzat jotzen da trebakuntza biziberritzea, irakasleenganako gerturatzeko-politiken bidez, benetako beharrei hobe erantzuteko eta inplikazio handiagoa lortzeko.

Lanbide heziketarako espazio propio baten beharra, jasangarritasunaren ikuspuntutik

- 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezarri duena, aukera bat da jasangarritasuna ikasleek eskuratu behar dituzten gaitasunetan benetan eta zehazki sartzeko, bai eta berrikuntza metodologikoa sustatzeko ere. Bere edukia gehiago hedatu behar da.
- Gipuzkoako Ingurugelatik lantalde bat sortu da Lanbide Heziketako (LH) zentroetan jasangarritasunerako hezkuntza lantzeko. Lantalde hori 2011-2012 ikasturtean sortu zen eta beharren eta eskuragarri dauden tresnen analisi bat egin du, 15 ikastetxe erakartzea lortuz.
- Lanbide Heziketako (LH) nolakotasunak ez du ahalbidetzen bigarren hezkuntzako beste zentro batzuetan aplikatutako EA21 erraz egokitzea. Lanbide Heziketak lan espezifikoak behar du, desberdindutako lan-kanal zehatzekin, eta ikasleen lan-munduan txertatzeko motibazioaren arabera. LHko ikastetxeen esperientzian oinarrituta, beharrezkoa da Lanbide Heziketarako eredu propio bat diseinatzea eta programatzea, bai eta beste tresna batzuk sortzea ere, etorkizuneko langileei jasangarritasunerako hezkuntza ematen lagunduko dutenak.
- Egun, 45 zentrok dute ingurumen-kudeaketako sistema bat edo gehiago (ISO 14001, Ekoscan).
- Badira jasangarritasuna berrikuntzarako tresna gisa baliatzen duten eta ikerketa Lanbide Heziketako zikloekin lotuta bultzatzen duten ikerketa-zentro eta elkarte batzuk (TKNIKA, IDIATEKA, IKASLAN, HETEL, eta abar), LHaren arloan berritzaileak direnak.
- Lanbide Heziketak kalitatezko parte-hartze bat behar du, barneratutakoa eta eguneratutakoa, irakasleen eta ikastetxearen arteko baterako lana sustatu eta bultzatzeko, horretarako baliabideak eta tresnak erabiliz.

Diagnostikoa unibertsitateko hezkuntza formalean

Jasangarritasuna unibertsitateen plangintza estrategikoaren zati bat da

— UPV/EHUko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizuneko Errektoreordetzak (gaur egun Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturagintzaren arloko errektoreordetza) Jasangarritasunerako Berrikuntzarako Laguntzen deialdia argitaratzen du 2013tik, UPV/EHU garapen jasangarrirako eragile aktibo bezala erakusten duten jarduerak sustatzeko, hezkuntza-aldaketa eraldatzailerako pertsonen gaitasuna garatzen duen hezkuntza-ikuspuntuarekin. Ildo berean, 2016/17 ikasturtean UPV/EHUk programa pilotu bat abiarazi zuen, Campus Bizia Lab, hain zuzen ere. Helburua da diziplina anitzeko komunitate bat sortzea, modu kooperatiboan campusetan bertan izan ohi diren jasangarritasun-faltako erronkak eta arazoak konpontzeko lan egiten duena.

— Garapen Jasangarri eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO katedrak, Nazioarteko Garapen eta Lankidetzarako Hegoa Azterketen Institutuak eta Agirre Lehendakaria Centrer for Social and Political Studies (ALC) Zentroak aukera bat izan behar lukete UPV/EHU jasangarritasuna sustatzeko.

— Lankidetzak daude administrazioekin, gai jasangarriekin erlazionatutako ikerkuntza-ekimenak bultzatzeko (ekodiseinua EHU eta Mondragon Unibertsitatean).

— Ez dago jasangarritasunerako ekintzarako tresna komunik unibertsitatean lurralde-eskalan. Unibertsitate batzuek Agenda 21 erabili dute. Ez dago eremu horretan erreferentea izango den unibertsitaterik Euskadin.

EHU-k eta Deustuk euren instalazioetan ingurumen-irizpideak txertatzeko egiten dute lan

— Lehenaren kasuan, kalitate-ziurtagirietan zehazten dira (Ekoscan). Ekimen gehienek eraginkortasun energetikoa eta hondakinen murrizketa lantzen dute batez ere.

— Unibertsitateetan (batez ere UPV/EHU eta Deustun) ingurumenari buruzko informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak egiten dira, hala ikasleentzat nola irakasleentzat eta administrazio eta zerbitzuetako langileentzat.

Potentzial handia garapen jasangarriko helburuak txertatzean aurrera egiteko

— CRUEren Ingurumen Kalitateko eta Garapen Jasangarrirako Batzorde Exekutiboak 2005ean onartutako «CRUE Curriculumua Jasangarri Bihurtzeko Zuzentarauak» existitzen dira. Oso dokumentu zabala da, baina unibertsitateetako errektoretza ezberdinentzako ibilbide-orri bezala balio izan behar du.

— Estatuko eta nazioarteko sareetan garapen jasangarria goi-mailako hezkuntzan barneratzea lortzeko lan egiten da (EHU Koperniko Sarean, UE4SD Proiektuan, CRUEn eta G9 unibertsitateetako taldean, besteak beste).

— UPV/EHU, jasangarritasunari lotutako edukiak dituzten ikasgaien kopurua handitu egin da 2011 eta 2014 urteen artean. Jasangarritasunarekin lotutako hautazko ikasgaiak nahitaezkoak baino gehiago dira. Horrek esan nahi du, nahitaezkoak ez direnez, ez dagoela ziurtatua ikasleek horiek ematea.

Diagnostikoa hezkuntza ez formalean

Ez dago koordinazio-kanalik edo elkarlanik

- Garapen jasangarrirako hezkuntzarako ekipamendu ugari daude. Funtsean erakunde publikoek kudeatutako ekipamenduak dira; batez ere, tokiko administrazioak eta foru-aldundiek. Horietatik % 18an sektore pribatuak esku hartzen du. Alabaina, ez dago koordinazio-kanalik Euskadin dauden jasangarritasunerako hezkuntza ez-formaleko ekipamendu ugarien artean.
- Ekipamenduetan lantzen diren gaien artean, pisu handiena natura/biodibertsitateak dauka, egiten diren jardueren % 40 baino gehiago horrekin lotuta baitaude.

Eusko Jaurlaritzak jasangarritasunerako hezkuntzarako hainbat ekipamendu ditu

- Eusko Jaurlaritzaren ekipamendu guztiak, Urdaibaiko Ekoetxea izan ezik, txikiak dira eta oso gai zehatzak jorratzen dituzte, inguruko ondare naturalarekin lotutakoak, eta zaila da batxilergoko edo haur-hezkuntzako edukien eskaintza aurkitzea ekipamendu horietan.
- Ekipamenduetako hezkuntza-programen balorazioa oso altua da, baita bisitarien ekipamenduei buruzko balorazioa ere.

Badira oso indartsuak diren ekipamenduak, beren esparruetan erreferenteak diren hezkuntza-programekin, esate

baterako Vitoria-Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegia edo Donostia/San Sebastián-eko Cristina Enea zentroa.

«Aztertu» Programa dibertsifikatu eta berritzeko beharra

- Azterturen bi kanpainari zuzendua, argi eta garbi: ibaiei buruzko «Ibaialde» eta kostaldeari buruzko «Azterkosta», publiko aldetik arrakasta handia izan dutenak. Ez dira bestelako ekosistemak lantzen.
- Sentsibilizazio-programei buruzko memorietan, jarduera guztiak ebaluatzeko metodoak daude haien eraginkortasuna neurtzeko, eta balorazioak oso positiboak dira.

Badago jasangarritasunerako gaikuntza, Administrazioak sustatutakoa

- Udalsarea 21 - Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sareak udaletako teknikariei jasangarritasunaren arloko prestakuntza eta gaikuntza emateko lan garrantzitsua egiten du, bai IVAPekin koordinatuta, Lan Ekitaldeekin zuzenean egiten duen lanaren bidez edo kide guztiei eta gizarte osoari zuzendutako koadernoak eta jardunbide egokiak zabalduz.
- IVAPek garatzen duen EAEko Administrazio Publikoko Langileak Jasangarritasunean Hezitzeko Programari esker, administrazio publikoko eragileei modu agregatuan eta horretarako ezarritako komunikazio-kanal zuzenen bidez prestakuntza ematen zaie.


Aurreko Jasangarritasunerako Hezkuntza Planaren emaitzak eta ebaluazioa

2006-2010 aldirako «Jasangarritasunerako hezkuntzaren aldeko konpromisorantz: **Jasangarritasunerako Ingurumen-hezkuntzako plana** (JIHP)» dokumentuak 6 jarduketa-lerro, 33 programa eta 114 neurri edo ekintzarako konpromiso zehatz zituen, unibertsitatez kanpoko eta unibertsitateko hezkuntza-sistema formalari zuzenduak. Plana hein handi batean gauzatu zen, eta adierazle-multzoko bat ezarri zen (dokumentu honen 1. eranskinean jasotakoak). Horiek erakutsi zuten hobekuntza nabaria izan zela planaren ezarpen-urteetan. Lortutako erronka handienak hauek izan ziren: ingurumenaren arloko informazio gehiago, eta, horri esker, adierazle gehiago kalkulatzeko aukera, Eskolako Agenda 21

eta Aztertu programen sendotzea eta jasangarritasunerako hezkuntzako ekipamenduen funtzionamenduarekin lotutako hobekuntzak.

Estrategia honen parte-hartze prozesuaren esparruan, galdetegi bat egin eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruko askotariko agenteen artean banatu zen. Galdetegi horretan, aurreko planaren aurrerapen-mailari eta bertan planteatzen ziren lanildoen gaurkotasun- eta lehentasun-mailari buruz galdetu zitzairen. Galdetegiaren emaitzek erakutsi zuten, jardueren % 75 jada martxan zeuden eta ildo estrategiko gehienetan jardueren % 80 baino gehiago martxan zeuden.

1. irudia.1
2006-2010 aldirako JIHPren jardueren ezarpen-maila



JHPren interesezko emaitza nagusiak (2006-2010)

Sentsibilizazioa

- Hezkuntza-komunitateak eta euskal gizarteak, oro har, gero eta sentsibiltate eta kezka handiagoa daukate ingurumen-arazoei buruz.

Irakasleei babesa ematea

- Badira Eusko Jaurlaritzak kudeatutako ingurumen-arloko informazio- eta komunikazio-baliabide batzuk —hala nola IHITZA, *Peñas Negras* aldizkaria, *Txingudi* aldizkaria eta Ingurugeletako liburutegiak—.
- Unibertsitatez kanpoko irakasleen % 43k ezagutzen dute Ingurugela. Horien artean, % 56ren iritziz oso edo nahiko interesgarriak dira.

Eskolako Agenda 21 programa eta ikastetxe jasangarriak

- Hezkuntza-komunitatean, gehienak oso pozik edo pozik daude Eskolako Agenda 21 programarekin. Ikasleen parte-hartzea nabarmendu da, bere balorazio onagatik.
- UNESCOk «Euskal Autonomia Erkidegoko Eskolako Agenda 21» programaren kalitatea aitortu du. 2010eko abenduaren 13an Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren Hamarkadako jardunbide egokia izendatu zuten.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen % 10ek ingurumena kudeatzeko sistema egiaztaturen bat dute (nagusiki, Ekoscan eta Ekoscan+).

Ingurumen-ekipamenduak

- Ingurumen-ekipamenduen eskaria handitzea.
- Eusko Jaurlaritzak kudeatutako ingurumen-hezkuntzako ekipamenduetan, bakoitzaren gaien espezifikoak diren trebakuntza-jardunaldiak, topaketak eta mintegiak antolatzen dira, edota horietan parte hartzen da.
- Eusko Jaurlaritzak kudeatutako ingurumen-hezkuntzako ekipamenduetako bisitarien satisfazioa oso handia eta egonkorra da.

Prestakuntza

- Oraingoan, ez dago JHPren prestakuntza-helburuei erantzuten dien prestakuntza-plan egituraturik.


Ikerketa

- 2003 eta 2009 artean, UNESCO Katedraren bidez, ingurumen-hezkuntzarekin lotutako 15 ikerketa-proiektu burutu dira Eusko Jaurlaritzak finantzatuta (kopuru osoaren % 20).
- UPV/EHUn ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin lotutako funtsezko hainbat eragile egoteak adierazten du gai horri buruzko kezka dagoela eta lantzen dela.

Eragileen koordinazioa

- JHPko lidergoan eta garapenean diharduten eragileen eta ingurumen-hezkuntzako ekipamenduen arteko barneko eta kanpoko koordinazio kanalak daude. Orain-oraingoan, ordea, ez dago kanal horiek baloratzeko mekanismorik, balioarriak, nahikoak eta egokiak diren ala ez aztertzeko.
- Parte hartzen duten udalen ia erdiak uste du Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 arteko koordinazioa bikaina eta/edo handia dela.

2. irudia
2006-2010 aldirako JHPren jardueren ezarpen-maila,
ildo estrategikoaren arabera



Lortutako emaitzek erakusten dutenez, Jasangarritasunerako Ingurumen-Hezkuntzako Planaren erronka batzuk lortzeke daude oraindik. Egiteke dauden etorkizuneko erronka bezala, honako hauek nabarmentzen dira: komunikazioan etorkizuneko jasangarritasunerako Hezkuntza planen funtsezko elementu bezala,

ebaluazio-sistemak kontsolidatzea eta Jasangarritasunerako Hezkuntzaren ebaluazio-plana egitea eta martxan jartzea, jasangarritasunerako hezkuntza Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean eta, orokorrean, jasangarritasunarekin konpromiso handiagoa duen euskal gizartea lortzeko lan egitea.

1.3. Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia prestatzeko partaidetza-prozesua

2. eranskinean dago jasota egindako partaidetza-prozesuaren inguruko txosten osoa. Jarraian horren alderdirik esanguratsuenak bildu dira.

Jasangarritasunerako Hezkuntza pertsona guztiei zuzenduta dago, etengabeko prestakuntzaren ikuspegi batekin, ikaskuntzaren ahalik eta espazio gehien barne hartzeko (formalak, ez-formalak eta informalak), haurtzarotik hasita bizitza osoan. Beraz, hezkuntzako ikuspegiak berbideratzeko eskatzen du: ikasketa-plana, edukia, pedagogia, metodologiak, etab.

Gainera, estrategia hau honako ikaskuntza-eremuetara zuzenduta dago, besteak beste: ikaskuntza ez-formala, erakunde komunitarioak eta tokiko gizarte zibila, lantokia, hezkuntza formala, prestakuntza teknikoa eta profesionala eta erabakiak hartzeaz arduratzen diren erakundeak.

Horren eraginez, Estrategia prestatzeko orduan, hainbat lan-esparrutatik gaiari buruzko ikuspegia eta ezagutza eskaini dituzten eragileen laguntza funtsezkoa izan da. Estrategia diseinatzeko prozesuan, hezkuntzaren arloko hainbat eragilerekin jarri



gara harremanetan, informazioa jasotzeko eta lan-saioak egiteko. Horien bidez, Jasangarritasunerako Hezkuntzaren egoerari buruzko diagnostiko-txosten bat sortu da, eta etorkizuneko erronkak eta gartu daitezkeen jarduerak identifikatu dira. Guztira 60tik gora pertsonak parte hartu dute zuzenean partaidetza-prozesuan.

Paraleloki, Irekia online plataformaren bitartez gizarterakundeen, talde informalen eta oinarri sozialaren parte-hartzea bideratu nahi izan da.

Partaidetza-prozesu honen helburuak honako hauek izan dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasunerako hezkuntzaren arloko adituen eta dinamizatzaileen protagonismoa ahalbidetzea eta bideratzea, 2030erako EAEko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia prestatzeko subjektu aktibo gisa.

- Elkar topatzeko eta batera gogoeta egiteko espazio bat sortzea, Jasangarritasunerako Hezkuntzaren arloko interes eta helburuak partekatzen dituztenen artean.
- Jasangarritasunerako hezkuntzari buruzko analisia eta eztabaida sustatzea, inplikaturako eragile guztien ikuspegitik: ikuspegia, gaur egungo diagnostikoa eta etorkizunerako ekintzak, epe motz eta ertainekoak.
- Praktikatik abiatuz, politika publikoak eraikitzen parte-hartzeak duen balioa eta uzten duen arrastoa.

Beraien egunerokoan hezkuntzaren hainbat esparrutan lan egiten duten pertsonak parte-hartze prozesu honetako protagonista izan dira. Bilertarako eta lan-jardunaldietarako deialdietan, haiek ikusteko, pentsatzeko eta hezkuntza oro har —eta, zehazki, garapen jasangarria— ulertzeko modua bilatu dugu.



eta beste batzuk...

2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia elaboratzerakoan, parte-hartzea bi fasetan izan da: bai diagnostikoaren fasean, bai Estrategia bera diseinatzeko garaian. Horrela, fase bakoitzean egin diren jarduketak honako hauek izan dira:

Diagnostikoaren fasea

- Funtsezko eragileak identifikatzea, hezkuntza-esparruaren arabera.
- 6 elkarrizketa sakon funtsezko 18 eragilerekin eta informazio-bilketa.
- Galdetegia 18 pertsona eta eragileri, estrategiaren betetze-mailari eta etorkizuneko erronkei buruz.
- Kontsulta web orriaren bidez: Irekia.

Estrategia berria diseinatzeko fasea

- 7 lantalde etorkizuneko erronkak hezkuntza-esparru bakoitzaren arabera identifikatzeko.
- 5 lantalde, helburu estrategikoetan sakontzeko (**Jasangarritasunerako Hezkuntzari buruzko Euskadiko IV. jardunaldien** esparruan).

Parte-hartzeari buruzko 2. eranskinean, egindako partaidetza-jarduera bakoitzari buruzko informazioa jasotzen da, baita ekintza bakoitzeko emaitza esanguratsuenak ere.

Zenbakitan, elkarrizketetako, interes-taldeetako eta jardunaldietako parte-hartzea honako hau izan da:

Partaidetza-jarduera	Bilera/elkarrizketa kopurua	Pertsona kopurua	Emakumeen %
Elkarrizketa-fasea	Taldeko 6 elkarrizketa	18	% 67
Interes-taldeen fasea	8 bilera	86	% 63
Jardunaldi-taldeak	5 lantalde	75	% 64
Irekia	-	7	% 14
GUZTIRA		189	% 61

Datu onak alde batera utzita, parte-hartzearen kalitatea funtsezkoa izan da. Lan-saio ezberdinetan, pertsonen inplikazioa eta kon-


promisoa bikaina izan da, baita eztabaidaren, gogoetaren eta sortutako ezagutzaren maila ere.

Jarraian, **2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren eskema** jaso dugu, atal hauetan zehaztuta:



2

ikuspegi estrategikoa



2.1. Ikuspegia-Misioa

2015eko azaroko Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntzarako IV. Jardunaldietan, Jasangarritasunerako Hezkuntzan lan egiten duten hainbat pertsonak horren etorkizunari buruz hausnartu zuten, eta xede izan beharko litzatekeen eta Estrate-

giaren oinarri izan beharko lukeen etorkizuna azaldu zuten, hainbat ikuspegitatik. Hala, ikuspegia definituko zuten funtsezko bost alderdiak proposatu eta azaldu zituzten. Jarraian, aipatutakoaren laburpen bat agertzen da.

1. Euskal herritar sentsibilizatuak, erantzukideak, kritikoak eta parte-hartzaileak

- Gizarte jasangarria izateak zer inplikatzan duen badakitenak.
- Toki-mailan eta maila globalean bere planetaren etorkizunaren arduradun gisa duten rolaz ohartzen direnak eta bere egiten dutenak, mundua hobetzeko, irtenbide eta akordio irudimentsuak bilatuz eta aplikatuz.
- Gazteei rol garrantzitsua ematen dietenak konpromisoari eta parte-hartzeari dagokionez.

2. Herri eta hiri hezitzaile eta jasangarriak

- Eguneroko bizitzan hezkuntza eta jasangarritasuna barneratu dituzten herriak eta hiriak.
- Pertsona guztiekin atseginak eta naturaren errespetuarekiko kontsekuenteak direnak.
- Zeharkako Jasangarritasun- eta hezkuntza-irizpideekin lan egiten duten erakunde irekiak lider dituztenak.

3. Ingurune berde, sozialki arduratsu, kulturalki aktibo, osasungarri, demokratiko eta baketsua

- Modu osasungarrian eta bakean bizitzeko ingurunea.
 - Ereku urbanoak naturan barneratuta dituena, eta, neurri handi batean, baliabideez autohornitzeko modukoa (energia berriztagarriak, baratzeak, eta abar).
 - Modu arduratsuan kontsumitzen duena, produktuen bizi-zikloa eta karbono-aztarna/aztarna ekologikoa/hidrologikoa kontuan hartuta.
 - Klima-aldaketaren eragina nabarmen murriztea lortu da prebentzioari esker, eta aldaketara egokitzeko neurriak hartu dira.
 - Biodibertsitatea gizarteak baloratutako elementu bat da.
-

4. Jasangarritasuna politiketan eta erabaki-hartzean barneratuta dago

- Lurraldearen antolaketa prozesu natural aktiboetan eta zerbitzu ekosistemikoetan oinarritzen da.
 - Aberastasuna modu ekitatiboan banatzeko neurriak hartzen dira.
-

5. Jasangarritasunerako hezkuntza lehentasunezkoa da Eusko Jaurlaritzarentzat eta gizartearentzat

- Jasangarritasunerako hezkuntzak berrikuntzan jardun du eta gaitasunen ikaskuntzan oinarritutako metodologiak garatu ditu. Jarduketa berriak aktiboak, barneratzaileak, diziplina artekoak, demokratikoak, integratuak, komunikatiboak eta koherenteak dira.
 - Jasangarritasuna presente dago bizitza osoko ikaskuntza-prozesuan, pertsonaren alderdi emozionaletik, arazoak modu irudimentsuan konpontzea lortzeko.
 - Ikasleen gaitasunak hobetu egin dira.
-

Hala, **2030erako IKUSPEGIA** proposatu zen:

Euskal hiritargo sentsibilizatua, erantzukidea eta parte-hartzailea, herri eta hiri hezitzaileetan bizi dena eta ingurune berde, sozialki arduratsu, kulturalki aktibo eta osasungarri batez gozatzen duena.

Beraz, Estrategiaren **MISIOA** honako hau izan beharko litzateke:

Pertsoneri ondo oinarritutako erabakiak hartu eta orain eta etorkizunean bere eta gainerakoen ongizatearen alde jokatzeko jarrerak, gaitasunak, ikuspegiak eta ezagutzak garatzen laguntzea.


Eta honako **JARDUERA-PRINTZIO** hauen arabera lan egin:



Genero-ikuspegiaren integrazioa Estrategiaren zeharkako printzipio bat izango da, eta maila guztietan eta plangintza-, gauzate- eta ebaluazio-fase guztietan txertatuko da.

3

2030erako helmugak eta jarduerak



Ikuspegia eta Misioa kontuan hartuta, baita aurretik deskribatutako jarduera-printzipioak ere, 4 Helmuga proposatu dira. Helmuga horiek 2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren lehentasunezko jarduera-ardatzak dira. Lehentasunezko ardatz hauek, gainera, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruzko Munduko Ekin-tza Programan lehentasunezkoak diren jarduera-arloekin bat datoz eta Estrategiaren prestaketarekin lotutako parte-hartze prozesuan kontsultatutako eragileen proposamenak jasotzen dituzte.

4 Helmuga horietatik 9 Jarduera-Lerro sortu dira, eta horiek zehazten dute 2030. urtean Euskadik izan

nahi duen lekua; hala, lerro bakoitzak etorkizuneko nahi bat adierazten du. Era berean, lerro horiek 27 Ekintza zehatzetan banatzen dira. Horiek guztiek 2020rako norabidea markatuko dute eta, hala, aldi horretako horizonterako Jasangarritasunerako Hezkuntzaren plangintzan koherentzia eta koordinazioa izatea bermatuko da. Ekintza horiek lehentasunezkoztat jo dira 2020rako, Diagnostikotik eta Partaidetza-Prozesutik eratorritako alderdi eta behar garrantzitsuenak identifikatu ondoren.

2030. urterako identifikatutako lau HELMUGAK honako hauek dira:

Helmugak

1. helmuga **Ekintzarako hezkuntza**

2. helmuga **Hezitzaileen, prestatzaileen eta bestelako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea**

3. helmuga **Gazteak trebatzea eta ahalduntzea**

4. helmuga **Hiriak eta herriak jasangarritasunerako ingurune hezitzaile gisa sustatzea**

1. helmuga

Ekintzarako hezkuntza

Hezkuntza eraldatzailea sustatzeko ikaskuntza-metodologia berriak barneratzea funtsezkoa da Jasangarritasunerako Hezkuntzako (JH) etorkizuneko erronkak geure gain hartzeko. Hezkuntza formalean eta ez-formalean inplikaturako pertsona guztien arteko lankidetzak eta koordinazioa lan-plangintza koherente eta integratu bat garatzeko oinarria da.

Helburu hori garatzeko, hezkuntzaren arloko erakunde guztiak babesteko sistema bat behar da. Funtzio hori Ingurugela zentro guztiek betetzen dute duela 25 urte baino gehiagotik, eta betetzen eta zabaltzen jarraitu behar dute, aukera berriei erantzuteko.

Eskolako Agenda 21 Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntzarako erreferentziazko programa da. Batez ere nahitaezko hezkuntza formaleko ikastetxeetan sendotu da. Programak ikuspegi orokorrak baliatuta lantzen du jasangarritasunaren auzia ikastetxe bakoitzean, aldi berean, Tokiko Agenda 21ekin konprometiturik. Xede-hartzailea hezkuntza-komunitate osoa da: irakasleak, ikasleak, familiak eta irakasleak ez diren ikastetxeko gainerako langileak.

2003tik, Eskolako Agenda 21 hazten joan da, ikastetxeen % 60tik gorako parte-hartzea lortzeraino; horiek ikasleen % 60 ordezkatzen dute. **Programak arrakasta nabarmena lortu duen arren, lanean jarraitu behar da, parte-hartzaile ahalik eta gehien izatea lortzeko, atxikitako ikastetxeen kopurua handitzeko eta ekin-**

tzara bideratutako ikaskuntza-metodologia eta -prozesu berriak txertatzeko.

Hori lortzeko, funtsezkoa izango da eboluzioa eta etengabeko hobekuntza sustatzeko ideiak eta ekimenak barneratzen jarraitzea. Horren adibide bat «Eskola Jasangarria» aitorpenarekin egin den bidea da: eskualdeetako eta nazioarteko foroetan partekatzen diren kalitatezko antolaketa- eta hezkuntza-ereduak eskaintzen ditu, eta, bide batez, sare-lana eta partaidetza sustatzen ditu.

Lanbide Heziketari eta unibertsitateari dagokienez, Jasangarritasunerako Hezkuntzak ez du Eskolako Agenda 21en antzeko lanerako eredu estandarrik, eta daukatenak ere egokitzapen-prozesu bat behar du —Lanbide Heziketaren kasuan, esaterako, Eskolako Agenda 21en esparruan lan egiten da—. Etorkizuneko estrategia honen erronka honako hau da: bi kolektibo horiek jasangarritasuna egiteko moduan barneratzea, maila eta ingurune guztietan.

Gainera, ingurumen-ekipamenduek hurbiltasun-eremu gisa duten ahalmenaren aldeko apustu ahalik eta handiena egin behar da, herritar helduek jasangarritasunarekin harremanetan jartzeko daukaten bide nagusia baitira. Hori lortzeko, haien arteko koordinazioa bultzatuko da, eskaintako prestakuntzaren kalitatea eta bere jardueraren ikusgaitasuna handitzeko, eta xede-hartzaileak zabaltzeko, gazte eta heldu gehiago erakarriz.

2030erako **1. HELMUGA** LORTZEKO EZARRITAKO **JARDUERA-LERROAK**

- **Hezkuntza-esparru ezberdinetan, eragile dinamizatzaileak eta berritzaileak Jasangarritasunerako Hezkuntzaren arloan daukaten rola sustatzea.**
- **Ekintzarako ikaskuntza bilatuko duten metodologia berritzaile eta integratzaileak sustatzea.**
- **Jasangarritasunerako Hezkuntzan lan egiten duten eragileen artean sareko lankidetzak sustatzea.**

2. helmuga

Hezitzaileen, prestatzaileen eta bestelako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea

Jasangarritasunerako Hezkuntzak herritarrei garapen jasangarrian ekarpen bat egiteko ezagutzak, gaitasunak, balioak eta jarrerak bereganatzen laguntzen die. Horretarako, jasangarritasunak aldatetarako eragile guztien jarduketa-esparru guztietan zeharkako presentzia behar du, aipatutako eragileak honako hauek izanik: administrazio publikotik hasita enpresa pribatura, hezkuntza formaleko zentroetatik komunikabideetara, erakunde eta elkarteetatik hasita gizabanakoetara.

Hezitzaileak hezkuntza-aldaketa hau bultzatzeko eta jasangarritasunaren arloko ikaskuntza errazteko funtsezko eragileak dira. Horregatik, oso garrantzitsuak dira hezitzaileak gaitzeko programak. Ingurugelak hezkuntza-etapa guztietako irakasleak trebatzeko prestakuntza-programa bat dauka; hala, jasangarritasuna eta berau irakasteko eta ikasteko

estrategia didaktikoak lantzen dira. Programa hori indartu egin behar da, hezitzaileen prestakuntzan inpaktu handiagoa izan dezan.

Nahiz eta irakasleek funtsezko rola daukaten hezkuntza-aldaketa hau bultzatzeko; aldaketa-eragile askok gaitu ditzakete herritarrak, eta halaxe egin behar dute, besteak beste, ingurumen-hezkuntzako profesionalek, administrazio publikoko teknikariek, erakundeek, elkarteek, fundazioek, etab. Eragile horiek ezinbestekoak dira gizarteari jasangarritasuna transmititzeko. Lan-eremuaren kasuan, askotariko sektore ekonomikoetako profesionalei prestakuntza emateko lan egingo da eta Jasangarritasunerako Hezkuntza Lanbide Heziketako, unibertsitate-prestakuntzako eta sektore bakoitzeko etengabeko prestakuntzako programetan barneratuz modu globalagoan gaitzea bultzatuko da.

2030erako **2. HELMUGA** LORTZEKO EZARRITAKO **JARDUERA-LERROAK**

- **Hezitzaileak ikaskuntza eta aldaketa errazteko gaitzea.**
- **Hezkuntza ez beste sektoreetako aldaketa-eragileak gaitzea.**

3. helmuga

Gazteak trebatzea eta ahalduntzea

Gazteek funtzio erabakigarria dute etorkizun hobearen lortzeko bidean, eta beraien eskola-ingurunean jasagarritasunarekin harremana izan dute edo daukate. Herritarren zati horren inplikazioa indartzeko (15-29 urteko bitarteko gazteak), ikastetxe-eremutik kanpoko hezkuntza bereziki garrantzitsua da; hezkuntza ez-formala eta informala, alegia. Baita gazteengan iristen diren kanal, mezu eta teknika egokiak erabiltzea ere. Bitarteko digitalen bidezko ikaskuntzari, online plataformei eta urrutiko ikaskuntzarako aukerei esker, gazteek kontsumoari eta bizimodu jasagarriari buruzko ideia eta ekimenak parteka ditzazkete. Horretarako beharrezkoa

izango da teknologia digitalean oinarritutako proiektuak garatzea.

Jasagarritasunarekiko eta ingurunearekiko emozioak lantzeari garrantzi berezia eman behar zaio. Norberaren bizipenen bidez azaldu behar da jasagarritasunaren mezua. Azken helburua honako hau da: gazteen jarrera kritikoa bultzatzea, bai ikastetxeetan bai horietatik kanpo, kontziente izan daitezen beraien eguneroko erabakiek eta ekimenek zer-nolako ondorioak dituzten, eta beraien sormenera eta erabakimenera jotzea, irtenbide eta aukera bideragarriak eta berritzaileak lortzeko.

2030erako **3. HELMUGA** LORTZEKO EZARRITAKO **JARDUERA-LERROAK**

- **Unibertsitateek eta Lanbide Heziketako ikastetxeek gazteak jasagarritasunaren arloan ahalduntzeko plataforma gisa duten rolaren balioa aitortzea.**
- **Jasagarritasunaren alorrean gaikuntza eta ikaskuntza sustatzea ekintzaren bidez.**

4. helmuga

Hiriak eta herriak jasangarritasunerako ingurune hezitzaile gisa sustatzea

Garapen jasangarriko arazoetarako irtenbide eraginkor eta berritzaileenak tokian toki aurkitu ohi dira, beraz, Jasangarritasunerako Hezkuntzak garatzeko ahalmen handia izan behar du maila horretan. Jasangarritasunerako hezkuntza eta ikaskuntza erabat mobilizatzeko, eragileek toki-mailan egiten duten ekintza indartu egin behar da.

Eskolako Agenda 21 Tokiko Agenda 21ekin estuki lotuta dagoenez, hezkuntza-komunitateak zuzenean parte hartu dezake udalerriko bizitzan, ikastetxeetako foroan bitartez. Euskadiko udalen erdiek baino gehiagok bi agenda horien arteko koordinazioa sustatzen dute.

Baina udalerrietako Jasangarritasunerako Hezkuntzak ez du ikastetxeetara mugatu behar: hiri edo herri hezitzaile eta jasangarriak biztanle guztientzako ingurune askotarikoak eta hobeak eraikitzea iritsi

nahi du. Bizi-esperientzia hori Jasangarritasunerako Hezkuntzaren tresna ahalsua da eta horretatik abiatuz pertsonen jasangarritasunaren kultura barneratuko dute, beraien eguneroko esperientziaren bidez, eta udalerriek hezkuntza-ingurune gisa funtzionatuko dute. Herri edo hiri hezitzaile eta jasangarriak benetako elkarlan-kultura batetik abiatuz lan egin behar du, auzoak kontuan hartuz eta kudeaketan parte-hartzea emanaz, ingurumen-arloa eta aniztasuna barne hartuko dituen diziplina arteko ikuspegi batean oinarrituta.


Beste alde batetik, sare-lana jasangarritasunaren arloko erronketarako irtenbide globalak eta lokalak bilatzeko prozesuaren parte eztabaida ezina da. Gaur egun, Udalsarea 21 osatzen dute Tokiko Agenda 21 duten eta jasangarritasunerako tokiko interesa duten gaiak sarean lantzen dituzten udalerriek osatzen dute. Gai horien artean egon daiteke herri eta hiriak garatzea ingurune hezitzaile gisa.

2030erako **4. HELMUGA** LORTZEKO EZARRITAKO **JARDUERA-LERROAK**

- Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21eko programen arteko koordinazioa indartzea eta balioztatzea.
- Toki-eragileek sustatu eta garatutako Jasangarritasunerako Hezkuntzako jarduerak bultzatzea eta dinamizatzea.

4

2020rako ekintza-plana




Estrategia honetan zehaztutako Ikuspegiak, Misioak eta Jarduera-Lerroek orain urrun dagoen (2030. urtea) eta lortu behar den azken helburu bat ezarri nahi dute. Puntu horretara iristeko, beharrezkoa da epe laburreko eta ertaineko ekintzak zehaztea, baina ekintza horiek eguneratu ahal izango dira metodologia berritzaileen, lantaldeen, sare eta harremenen eraketaren eta abarren inguruko aurrerapen berriak gertatu ahala.

2030erako finkatu den Ikuspegiak, beraz, tarteko mugarriak izango ditu. Estrategia hiru ekintza-planen bidez gauzatuko da: 2020rako Ekintza-Plana, 2025erako Ekintza-Plana eta 2030erako Ekintza-Plana. Ildo horretan, Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia garatzeko lehenengo epea

2020. urtera artekoa izango da. Beraz, atal honetan, horizonte horretarako ekintza batzuk zehaztu dira, hau da, 2030erako finkatutako Ikuspegia, Misioa eta Jarduera-Lerroak lortzeko lehenengo urratsak. Kudeaketa-ereduaren atalean aurrerago azaltzen den bezala, 2020an ekintza horiek berrikusi eta eguneratu egin beharko dira, horrela Estrategia behar berrietara egokitzeko.

Partaidetza-prozesuan jasotako ekarpen guztiak Lehentasunezko ekintzak idazteko baliagarriak izan dira, 2020. urterako bide-orria izango baitira, ezarritako helmugan lorpenean aurrera egin ahal izateko. Jarraian jaso diren ekintzetako bakoitzak bere edukia zehazten duen fitxa bat dauka.



1. helmuga: **ekintzarako hezkuntza**

JARDUERA-LERROA:

HEZKUNTZA-ESPARRU EZBERDINETAN, ERAGILE DINAMIZATZAILEEK ETA BERRITZAILEEK JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZAREN ARLOAN DAUKATEN ROLA SUSTATZEA

1. Ingurugela-Berritzegune lantalde bat sortzea, Heziberri 2020ren esparruan ikastetxeei jasangarritasunerako hezkuntza abian jartzen laguntzeko.
2. «Eskolako Agenda 2030» berria diseinatzea.
3. Jasangarritasuna ikastetxeetako bizitzan eta kulturen barneratzea, ikastetxe bakoitzeko urteko planean jasota.
4. «Lanbide Heziketarako 2030erako Agenda Programa» diseinatu eta garatzea.
5. Lantalde espezializatu bat sortzea, Lanbide Heziketari zerbitzua emateko jasangarritasunaren esparruan.
6. Irakasleen, ikasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen sare kooperatibo bat sortzea, unibertsitateko curriculuma jasangarri bilakatzeko.

JARDUERA-LERROA:

EKINTZARAKO IKASKUNTZA BILATUKO DUTEN METODOLOGIA BERRITZAILE ETA INTEGRATZAILEAK SUSTATZEA

7. «Eskola Jasangarria» zigilua egiaztatzeko sistema bat garatzea.
8. «Aztetu + Programa» diseinatzea, kanpainak Natura 2000 Sarera zabalduz.
9. UPV/EHUn Campus Bizia Lab programa sustatzea.
10. Interpretazio-zentroetako ekintzara bideratutako hezkuntzaren gida metodologiko bat egitea.

JARDUERA-LERROA:

JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZAN LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEN ARTEAN SAREKO LANKIDETZA SUSTATZEA

11. Jasangarritasunerako hezkuntzako foro tekniko bat dinamizatzea, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko koordinazio-lanetarako.
12. «Jasangarritasunerako Hezkuntzako Ekipamenduen Euskal Sarea» sortzea eta dinamizatzea.
13. «Hezkuntza Agenda Jasangarria 2030» ataria sortzea, lankidetzarako eta jasangarritasunerako hezkuntzari ekarpena egiten dioten esperientzia eta jardunbide egokiak hedatzeko.

2. helmuga: **hezitzaileen, prestatzaileen eta bestelako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea**

JARDUERA-LERROA:

HEZITZAILEAK IKASKUNTZA ETA ALDAKETA ERRAZTEKO GAITZEA

14. Lanbide Heziketako irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen prestakuntza-beharrei buruzko ekintza-plan bat egitea, jasangarritasunerako hezkuntzako eredu bat praktikara eramateko.
15. Unibertsitateko irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen prestakuntza-beharrei buruzko ekintza-plan bat egitea, jasangarritasunerako hezkuntzako eredu bat praktikara eramateko.
16. Jasangarritasunerako hezkuntzaren jardunbide egokiak identifikatzea ikastetxe tutore eta laguntzaileetan, bikaintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko.

JARDUERA-LERROA:

HEZKUNTZA EZ BESTE SEKTOREETAKO ALDAKETA-ERAGILEAK GAITZEA

17. Jasangarritasunerako hezkuntza bitzitza osorako ikaskuntzan barneratzea esperientzia-ikasgelen bitartez.
 18. Beste eragile batzuekin elkarlanean, online prestakuntza-eskaintza bat prestatzea unibertsitateko ikasleei zuzendutako jasangarritasunerako eskumenak garatzeko.
 19. Administrazio Publikoko teknikarientzat Garapen Jasangarriko Helburuen inguruko prestakuntza-ikastaroak antolatzea.
-

3. helmuga: **gazteak trebatzea eta ahalduntzea**

JARDUERA-LERROA:


UNIBERTSITATEEK ETA LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEEK GAZTEAK JASANGARRITASUNAREN ARLOAN AHALDUNTZEKO PLATAFORMA GISA DUTEN ROLAREN BALIOA AITORTZEA

20. Jasangarritasunerako ikerketa sustatzeko bide-orri bat definitzea Euskadiko unibertsitateetan.
21. Gazteentzako foro bat diseinatzea Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotuta.
22. Unibertsitate-eremuan Jasangarritasunerako Hezkuntzari buruzko hausnarketa eta eztabaida bultzatzeko urtean behingo topaketa bat egitea.
23. Graduon eta graduondoko ikasketa-programetan garapen jasangarriarekin lotutako ikuspegi berriak txertatzea.

JARDUERA-LERROA:

JASANGARRITASUNAREN ALORREAN GAIKUNTZA ETA IKASKUNTZA SUSTATZEA EKINTZAREN BIDEZ

24. Euskal gazteen partaidetza bultzatzea nazioarteko foroetan, esperientziak eta ezagutza trukatzeko jasangarritasunaren bidean.
-



4. helmuga: **Hiriak eta herriak jasangarritasunerako ingurune hezitzaile gisa sustatzea**

JARDUERA-LERROA:

**TOKIKO AGENDA 21 ETA ESKOLAKO AGENDA 21EKO PROGRAMEN ARTEKO KOORDINAZIOA
INDARTZEA ETA BALIOZTATZEA**

- 25. Eskolako 2030 Agenda eta udalerrien arteko koordinazioa sustatzea.
- 26. Euskadi guztirako Eskola Foro bat egitea, udalerriaz gaindiko tokiko izaera duten proposamenak lantzeko.

JARDUERA-LERROA:

**TOKI-ERAGILEEK SUSTATU ETA GARATUTAKO JASANGARRITASUNERAKO HEZKUNTZAKO
JARDUERAK BULTZATZEA ETA DINAMIZATZEA**

- 27. Proiektu berritzaileak sustatzea tokiko esparrutik jasangarritasunerako hezkuntzarekin lotuta.
-



5

kudeaketa- eredua: gobernantza, analisi ekonomikoa eta jarraipena



5.1. Gobernantza

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila eta Hezkuntza Saila dira 2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren liderrak. Baina, jasangarritasunerako hezkuntzan lan egiten duten hainbat mota eta jatorritako beste eragile asko daudenez (kalitate handikoak eta ibilbide luzekoak), estrategian barneratzeko ahalegina egiten ari da, baliabideak optimizatu ahal izateko eta, hala, bikoizketak edo gainjartzeak saihesteko eta etorkizuneko erronka erkideak bateratzeko.

Jarraian azalduko dira proposatutako helmuga bakoitzean definitutako ekintzak gauzatzeko beharrezko koordinazio- eta laguntza-tresnak.

1. helmuga. Ekintzarako hezkuntza

Ikastetxeetan sarean lan egitea funtsezkoa da baliabideak eta ezagutza partekatzeko, Eskolako Agenda 2030 programa berria norberarena izatearen eta globaltasunaren sentimendua lantzeko, baina baita nabarmentasun handiagoa izateko ere. Gaur egun Euskadin **sarean lan egiteko** tresna Ingurugela zentroen eta IRAES sareko zentroen arteko koordinazio-lana da eta geroan ere bultzatuko da. Era berean, bi horiek maila handiagoko beste sare batzuen parte dira.

Ingurugela zentroek ikastetxeen eta Euskadiko administrazio orokorraren arteko koordinazio-lotura funtzio garrantzitsua betetzen dute, eta Heziberri 2020 Planean aurreikusita dagoen ezarpenak eta Berritzeguneekeko elkarlanak bultzada bat emango diote. Hezkuntza-esparruetako ordezkariak osatuta-

ko lan-foroak, era berean, balioko du funtzio hori indartzeko, esparru ez-formaletara eta informaletara zabaltzeko eta garatu beharrezko jarduera eta tresna komunei buruzko erabaki-hartzeak koordinatzeko.

Lanbide Heziketan Eskolako Agenda 2030 bultzatzeko, beste eragile batzuek esku hartu beharko dute; izan ere, Eskolako Agenda 21etik bereizteak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta/edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen parte-hartzea eskatuko du, Lanbide Heziketako zentroi aholkularitza benetan eraginkorra eta lagungarria eman ahal izateko.

Unibertsitateko hezkuntza formalari dagokionez, Euskadiko unibertsitate guztien arteko bide-orri partekatu bat eratzea proposatzen da, Jasangarritasunerako Hezkuntzako ikerketarako baliabideak lortzera bereziki bideratua.

Ekipamenduen Euskal Sarearen sorrerak eta dinamizazioak hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko koordinazioa hobetzea ahalbidetuko du. Horretarako, jasangarritasun-ekintza bateratuak antolatzeaz gain, kalitate-irizpide komunak definituko dira, etengabeko hobekuntzarako sistema partekatu bat ezarriko da eta dibulgazio-baliabideak sortuko dira. Ekipamenduetan eta beraien sare-lanean ezin da ahaztu turismo-sektorearekiko harremana, eta sektore horrekin bat egiteko puntuak bilatu behar dira.

Azkenik, Estrategian ekintza-eremua gizarte osoko aldaketarako eragileei irekitzen zaie eta herritar guztiak barne hartzen dira, herritarrek Aztertu+ programaren bitartez bizitzan zehar jasangarritasunaren arloko gaitasunak hobetu ahal izan ditzaten.

Helburu hori lortzeko, bereziki garrantzitsua izango da tokiko eragileekin eta gizarte zibil antolatuekin jasangarritasunerako ekintza-proiektuak bultzatzeko lortzen den konplizitatea.

2. helmuga. Hezitzaileen, prestatzaileen eta bestelako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea

Ikastetxeetako irakasleen jasangarritasunaren arloko gaitasuna INGURUGELAN eta BERRITZEGUNEEN koordinazio- eta elkarlan-zereginen bitartez indartzen jarraitu behar da.

Baina bestelako eragileak, irakasleak ez diren bestelako funtsezko eragileak, gaitzeko lan beharrezko eta garrantzitsua ere egin behar da. Lan horretan, egiteko garrantzitsua dauka garapen-agentzien koordinatzaileak (GARAPEN), baita IVAPek ere.

3. helmuga. Gazteak trebatzea eta ahalduntzea

Helburu honetan, eragileen arteko elkarlana bereziki garrantzitsua da. Gizarteko sektore gaztearekin egiten den lana gauzatzeko, partaidetza-, adostasun- eta elkarlan-balioak oso kontuan hartu behar dira. Balio horiek gabe, gazteek ez dute sentituko

barnean daudela, ezta ordezkaturik daudela ere; era berean, ez dute sentituko ahalmena dutenik etorkizuna aldatzeko hemen proposatzen diren ekintzen bitartez.

Lotura hori lortzeko, interes komunekin belaunaldien arteko zubiak eta espazio, formatu eta metodologia egokiak bilatu beharko dira. Ildo horretan, teknologia berrien aldeko apustua egin da. Teknologia horiek aukera ugari ematen dituzte, eta aukera horiek elkarrekin aztertu behar dira, kanal onenak zeintzuk diren definitzeko. Horrez gain, ekintza zuzenean inplikatzeko metodologiaren alde ere egin da, adibidez, ikaskuntza-zerbitzu proiektuen alde, ingurumen-ekipamenduekin elkarlanean edo Euskadiko Gazte-riaren Kontseiluaren alde (EGK).

4. helmuga. Hiriak eta herriak jasangarritasunerako ingurune hezitzaile gisa sustatzea

Udalsarea 21 - Jasangarritasunerako udalerrien euskal sareak paper garrantzitsua du tokiko mailan eta Eskolako Agenda 2030ekin koordinatzea ezinbestekoa izango da bi programak ahalik eta gehien bateratzeko, Udalsarea 21en laneko 10. koadernoan jasotakoarekin bat: «Ingurumen-hezkuntza jasangarritasunerako: Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 koordinatzea».

5.2. 2020rako ekintza Planerako baliabide ekonomikoak

Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren epemuga 2030. urtea da, hau da, 12 urteko ibilbidea izango du, eta Estrategia hau 3 ekintza-planen bidez egitea aurreikusten da: lehenengoa Estrategia onartzen denean hasiko da eta 2020ra artekoa izango da, eta beste biak 2021-2025 eta 2026-2030 aldietan gauzatuko dira. Ekintza-plan bakoitza amaitzen denean, Estrategiaren ezarpen-maila ebaluatuko da, baita Estrategiako helmugei egin dien ekarpena ere, eta, ebaluazio horretatik abiatuta, hurrengo ekintza-plana diseinatuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko bilakaera ekonomikoak, Europako gainerako herrialdeetakoekin bat, suspertze ekonomikoaren zantzu argiak ditu non, 2017rako erregistratutako hazkundea % 2,9 inguruan kokatu zen, eta 2018ko aurreikuspenak %2,4an kokatzen dira. Ziurgabetasunik handienek lotura dute nazioarteko testuinguruarekin batez ere protekzionismoaren itzalen eta tirabira geopolitikoaren eratorritakoak. Horri guztiari Estrategiak duen denbora-epe luzea

eranstean badiogu, gomendagarria da printzipio kontserbadoreak izatea aurrekontuei lotutako gastuak kalkulatzeko direnean.

Erreferentziako aurrekontu-esparrua 2018an Ingurumen Sailburuordetzari lotuta dituen aurrekontuak dira, eta zehazki, jasangarritasunerako hezkuntzarekin zerikusia duten partidak, hain zuzen, «*Politiken koherentzia bermatzea ingurumen-integrazioa areagotuz*» 5. helburu estrategikoaren atalekoak. Hezkuntzako Sailaren aurrekontu-konpromisoari dagokionez, Estrategiarekin lotuta dagoen neurrian, hori langileen kapituluari zuzenduta egongo da. Kapitulu hori ez dago, berriaz, erabiltzeko aurrekontura mugatzen den aurrekontu estimatuaren barnean. Aurrekontu-esparru horren arabera (erabiltzeko esleitu den aurrekontua¹ 1.400.000 euro² inguruan egongo da), aurreikusitako jarduketak garatzeko 2018an behariko diren aurrekontu-baliabideak hauek izango lirateke:

2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia	Aurrekontu-beharrak	Ehunekoak
1. helmuga. Ekintzarako hezkuntza	535.000	% 38,6
2. helmuga. Hezitzaileen, prestatzaileen eta bestelako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea	82.000	% 5,9
3. helmuga. Gazteak trebatzea eta ahalduntzea	190.000	% 13,7
4. helmuga. Herriak eta hiriak jasangarritasunerako ingurune hezitzaile gisa sustatzea	580.000	% 41,8
GUZTIRA	1.387.000	% 100

¹ Erabiltzeko esleitu den aurrekontuan, kanpoan utzi ditugu langileen gastuak eta jarduketa zehatz batekin loturarik ez duten gastuak, hau da, egitura-gastutzat jotzen direnak.

² Behin behineko datu ekonomikoak.

Aurrekontu-zenbatespen horren arabera, ez legoke igoerarik 2018ko aurrekontuaren aldean. Bestalde, Ingurumen Sailburuordetza eta Hezkuntzakoaren aurrekontu-baliabideez gain, kontuan hartu behar da Estrategiaren inplementazioa beste agente batzuen inplikazioaren mende ere badagoela, hala nola udalerriak edo unibertsitateak berak. Ildo horri jarraikiz, aurreikustekoa da eragile horiek Estrategia hau garatzeko aurrekontu gehigarri bat bideratzea. Osagarritasun hori Estrategia beste agente batzuekin elkarlanean aritzearen emaitza da.

Aurrekontua kalkulatzeko ziurgabetasuna areagotu egiten da, lehenengo ekintza-planaren denbora-epean aurrera egin ahala. Hori dela eta, onartzen dugu aurrekontuan igoerarik ez dela egongo, baina

2018rako onartutako aurrekontuak bere horretan jarraituko duela, Estrategian jasotako jardueri jarraipena eman ahal izateko, susperraldi ekonomikoa eta enplegua sendotu egingo direlako aurreikuspenean oinarrituz. Hala, Ingurumen Sailburuordetzak Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren lehen ekintza-plana garatzeko erabil dezakeen aurrekontua 4.161.000 euro ingurukoa da, planak iraungo duen urteetan banatuta.

Aurrekontu-aurreikuspenak zeinahi direla ere, Estrategiako lehenengo ekintza-planeko ekitaldi bakoitzeko jarduera-maila Legebiltzarrak ezarritako aurrekontu-aginduen mende egongo da, baita Estrategia garatzeko behar diren tresnen tramitazio formalaren mende ere.

2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia	Urteko aurrekontu-beharrak	Ekintza planaren guztizkoa
1. helmuga. Ekintzarako hezkuntza	535.000	1.605.000
2. helmuga. Hezitzaileen, prestatzaileen eta bestelako eraldaketa-eragileen gaitasuna indartzea	82.000	246.000
3. helmuga. Gazteak trebatzea eta ahalduntzea	190.000	570.000
4. helmuga. Herriak eta hiriak jasangarritasunerako ingurune hezitzaile gisa sustatzea	580.000	1.740.000
GUZTIRA	1.387.000	4.161.000

5.3. Jarraipena eta ebaluazioa

Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntzako Estrategiak 2030erako eduki estrategikoa dauka, baina ekintzak 3 urterako planifikatuta daude (2018-2020). Onartzen denean, interesgarritzat jotzen da kudeaketa moldagarria izatea, eta, horregatik, hainbat jarraipen-mekanismo aurkeztu dira:

2020an eta 2025ean, planaren gauzatzean behean jasotako adierazleak berrikustea proposatzen da, helburuen lorpena ebaluatzeko. Berrikuspen horrek berriz ebaluatzeko balio behar du, ekintzen eta strategiaren gauzatze-mailarekin batera (beherago azaltzen da), eta, ekintza eskalatzeko, 5 urtera begirako eragin estrategikoan pentsatuz, beharrezko aldaketak barneratzeko eta ekintza-plana berregiteko. Eta halaxe jarraituko da, 2020an eta 2025ean, ikuspegi estrategikoa bat izatea baina aldi berean kudeaketa errealagoa eta zehatzagoa izatea ahalbidetzeko, testuinguru sozioekonomiko aldakorrean.

Estrategiaren betetze-maila ebaluatzeko —horrek ezarpena ere ebaluatzea ahalbidetuko du—, proposatzen da planean aurreikusitako ekintza bakoitzaren garapenaren jarraipena egitea. Ekintza-planaren aplikazioan egindako aurrerapenak islatu nahi dira, Estrategiaren ekintza- eta ebaluazio-mekanismoen bidez:

— **Ekintza-Planak:** 3 edo 4 urteko aldietan garatu beharreko jarduerak biltzen dituzte, eta aldi horietako lehenengoa 2020rako Ekintza Plan gisa Estrategiak berak jasotzen du. Hala, 2025erako ekintza-plan berri bat egingo da eta azkena 2030erako egingo da.

— **Bi urtez behingo jarraipen-txostenak:** ekintza-plan bakoitzean aurreikusitako jardueren aurrerapen-maila jasotzen dute.

— **Ekintza-Planaren Ebaluazio-Txostenak:** txosten horiek ekintza-plan bakoitzaren azken urteetan egingo dira, eta, bi urtez behingo jarraipen-txostenarekin batera, hurrengo ekintza-planaren oinarri izango dira. Txosten kanpoko erakunde batek egingo du, aintzat hartuz gardentasun, partaidetza eta lankidetzarako irizpideak, eta aginte-koadroko adierazleen bilakaera ere barnean hartuko du.

2030erako EAEko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren jarraipenaren eta ebaluazioaren ondorioz sortzen den informazio guztia Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskuratu ahal izango da (www.ingurumena.eus), kontsultatzeko eta parte hartzeko.

Ondoren, 2030erako EAEko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren betetze-maila neurtzeko sistema objektiboa agertzen da.

2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiaren aginte-koadro integrala

Emitzen adierazleak		2020rako helburua	2030erako helburua
1	«Eskolako Agenda 2030»en parte hartzen duten derrigorrezko hezkuntzako ikasleen ehunekoa. % 63 (2016)	% 70	% 90
2	Eskola jasangarrien sarean dauden derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeen kopurua. 92 (2016)	120	200
3	«Lanbide Heziketako Agenda 2030 programa»n parte hartzen duten Lanbide Heziketa arautu eta partzialeko ikasleen ehunekoa. % 0 (2016)	% 20	% 50
4	Gradu edo master amaierako lanetan (GRAL eta MAL), praktiketan eta elkartasun eta/edo lankidetzako jardueretan jasangarritasunaren alorreko arazoaren konponbidea bilatzen duten unibertsitateko ikasleen ehunekoa.	% 10	% 25
5	Ekoetxeak ezagutzen dituzten Euskadiko herritarren ehunekoa. % 27 (2016)	% 40	% 60
Ekintza Planaren kudeaketaren adierazleak		Xedea	
1	2020rako Ekintza-Planeko jardueren gauzatzeko-maila	% 100	
2	Ekintza-Planaren jarraipenari buruzko txostenak egitea	Bi urtean behin	
3	Ebaluazio-txostenak egitea	2020, 2025, 2030	

